## ESTRATEGIAREN LOGIKA

Aldirietako aparkaleku bat hiri-aldirietako toki jakin batean aparkatzeko eskaintza da, sarbidea izateko bide nagusien eta garraio publikoko ahalmen handiko ardatzen ondoan kokatuta dagoena estrategikoki, ibilbidearen azken zatia garraio publikoan egiteko bidea emateko. Aldirietako aparkalekuen sare baten atzean dagoen onura nagusietako bat hau da: automobilak Iruñerrian dauden jatorri sakabanatuei bezalakoei irisgarritasuna emateko duen malgutasuna eta garraio publikoak trinkotuta dauden helmugetara (zeinetan automobila ez den batere eraginkorra) irisgarritasuna emateko duen eraginkortasuna konbinatzea.
Aurretiko fasean IHMIParen Diagnostikotik ondorioztatzen den moduan, koroako udalerrien eta hirigunearen arteko erlazio erradialek ibilgailu pribatuaren mendekotasun handia dute.

**Helburu orokorrak:** 9, 10, 11, 12, 13, 14 ,15 eta 16

## JARDUKETEN PROPOSAMENA

### Motak

- Lur gainekoa
- Gorakakoa
- Gorakakoa, eraikinean
- Lur azpikoa

### Plangintza eta diseinua egiteko irizpideak

- Aldirietako aparkalekuetarako sarbidea soil-soilik izango dute aldaketa modal bat egiten duten erabiltzaileek.
- Ibilgailuaren segurtasuna bermatu behar da, eta eguraldi txarraren aurrean babestuta egon behar du.
- Zainduta egon beharko dute etengabe, edo pertsonen bidez, edo bideozaintzako kameren bidez.
- Plazak egoki argiztatuta egongo dira, berdintasun- eta irisgarritasun-irizpideak kontuan hartuta, mugikortasun urriko pertsonei plazak emateko hurbilen dauden irteeren ondoan.

### Tarifak integratzeko politika

- Autobus-txartelaren kostua gutxitzea aldirietako aparkalekua erabiltzen duenari eta/edo aparkatzeko kostua gutxitzea.
- Hirigunean iraupen luzerako aparkatzearen kostua emendatzea.
- Erabiltzeko maiztasunaren arabera
- Tarifa oso baxuak edo nuluak haraneko orduetan.
- Deskontuak, ibilgailuko pertsona kopuruaren arabera.

### Kokalekuak

1.Ardatza: Berriozar
2. Ardatza: Atarrabia
3. Ardatza: Lezkairuko Zaldua
4. Ardatza: Zaragozako etorbidea
5. Ardatza: Pio XII.aren etorbidea

Edonola ere, Aldirietako Aparkalekuen Sarea analisi zehatz baten arabera aztertu beharko da, **poltsetako bakoitzaren azken kokalekua, bere kostuarekin eta eskaeraren gainean izan dezakeen atzematearekin erlazioan jartzeko.**

**Sarbide nagusietan kokalekuak:**




## EZARTZEKO KOSTUA

Aldirietako Aparkalekuen Sarerako zenbatetsitako kostua 80,6 milioi eurokoa da

## BETETZEKO EPEAK

Batzuk hilabete batzuetan eraiki edo ezar daitezke. Hala ere, kalkulatzen da sare osoa ezartzeko epea bi eta sei urte artekoa izan daitekeela.

**Iruñerrirako Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Planeko hurrengo estrategiekin erlazionatuta:**

- 1.1 estrategia: Bete beharreko lurralde-plangintzaren egituraketa.
- 1.2 estrategia: Lurralde-artikulazioa hiri-zeluletan.
- 3.1, 3.2 eta 3.3 estrategiak: Bizikleta-mugikortasuneko estrategiak.
- 4.1 estrategia: EHGaren Prestazio Handiko Sarea.
- 5.1 estrategia: Aparkamenduaren kudeaketa integrala erakarpen-guneetan.

# Objetivos PMUSCP

La movilidad en tus manos
Mugikortasuna zure esku

## Movilidad Peatonal

01 Dar prioridad a peatones frente a todos los demás modos de desplazamiento en distancias cortas.

02 Crear una red peatonal de conexión de todos los barrios y áreas urbanizadas.

03 Proporcionar acceso al transporte colectivo.

## Movilidad Ciclista

04 Superar problemas de accesibilidad puntuales actuales.

05 Mejorar la accesibilidad de todos los barrios y núcleos urbanos

06 Dar prioridad a la bicicleta frente a los modos de desplazamiento mecanizados en distancias medias.

07 Apoyar el creciente uso de la bicicleta, sin perjudicar a peatones.

08 Favorecer los recorridos cortos y medios en bicicleta

## Transporte Colectivo

**09 Mejorar los recorridos para favorecer la accesibilidad de todos los barrios y áreas urbanizadas.**

**10 Dar prioridad al autobús frente al vehículo privado.**

**11 Promover la intermodalidad.**

**12 Mejorar la accesibilidad a los servicios de interés general.**

**13 Mejorar los tiempos de viaje en distancias medias y largas.**

## Vehículo Privado

**14 Reducir el uso del vehículo privado para relaciones radiales.**

**15 Reducir la velocidad del vehículo en el espacio urbano**

**16 Reducir la intrusión del vehículo en el espacio urbano.**

17 Evitar el empleo del vehículo privado en desplazamientos cortos

## Programa de Seguridad Vial

18 Mejorar la seguridad vial de peatones y ciclistas.

19 Mejorar la seguridad vial en general.

## Espacio Público

20 Mejorar la calidad del espacio público.

21 Recuperar parte del espacio utilizado hoy por el vehículo privado, especialmente en las áreas urbanas centrales y en las residenciales.

22 Diseñar los espacios públicos y equipamientos como espacios para la estancia y la convivencia.

23 Prever en los nuevos desarrollos urbanos una buena conectividad con el sistema de transporte público.